


MUNDUKO HIZKUNTZA GUTXITUAK



1. Azalpena

Garrantzitsua da ikasleek munduko hizkuntza aberastasuna ezagutzea eta baloratzea. Horretarako biderik hobereena da gure inguruan dauden hiztun eleaniztunei haien kultura eta hizkuntzei buruz galdetzea.

Hizkuntza gutxituen berri izatea bereziki interesgarria da, komunikabideetan agertzen ez direlako, eta horietako askok euskarak dituen (edo izan dituen) ezaugarriak dituztelako.

Garabidek bideo laburrak (5 min. ingurukoak) grabatu zizkien hainbat hizkuntza gutxitutako hiztunei. Bideoetan jatorrizko hizkuntza entzun eta euskarazko itzulpena azpigituluetan irakur daiteke.

2. Jarraibideak

Amazigera, mapuxera, kitxuera, guaraniera, kagchikelera, maia hizkuntza... Ezagutzen duzue hizkuntza horietako batean egiten duen hiztunik? Horrela bada, eskatu bere hizkuntza eta kulturari buruzko gauzak azaltzeko. Horrela ez bada, hemen duzue hizkuntza horiei buruz zerbait jakiteko beste bide bat, aukeratu eta entzun...

[Amazigera](#)

[Mapuxera](#)

[Kitxuera](#)

[Guaraniera](#)

[Kagchikelera](#)

[Yucatanango maia hizkuntza](#)